

EUSKERAZALEAK

Euskerazaleak

Euskerea

Erabiltearen

Aldeko Alkartea

*Aita Zenon Uriguen Pasiotarrak,
Batu eta egokitua*



EUSKALTZAINDIA ETA EUSKERA BATUA.

2017, urte onetan betetzen dira 50 urte sortu zala Euskerazaleak bazkidea eta, danok bat eginda, ospatuko doguz bere sorrera eta urte buru onetan egindako idaz-lanak, ekiñaldiak eta Euskeraren alde jokaturako ekimen guztiak. Gure historia nekegarria izan da baña oso aberasgarria, batez be, Bizkaiko euskalkiaren alde.

Ona emen aspaldion euskeraren alde lanean diarduen erakunde bi: Bata Euskaltzaindia Euskal erri osorako eta bestea Euskerazaleak Bizkairako. Euskaltzaindiaren ama Kardaberaz bazkuna da. Bazkun au Gaistezko Seminarioan sortu zan Manuel Lekuona ta Josemiel Barandiaran´en babespean eta lan aundia egin eben, baña 1936 ean guda zitak irakasleak erbestera eroan ebezan eta ikasleak gudara. Baña geroago 1965 urte inguruan kardaberastarrak barriro alkartu ziran Tolosan eta lan andia egin eben, batez be, argitalpen arloan. Batzarrean iñoiz baño bazkide geiago batu giñan, au da 100 bazkidetik gora.

1986 urtean gure Lekuona, euskaltzain burua, bere ardura onetatik kendu egin eben. Zergaitik? Eritxi ezbaridiñak alkartzeko lan aundia egin ondoren, azkenean euskera batua eta atxea onartu ziralako. Aurretiaz zin eginda egozan, oiuka eta irañez, bazkiderik geienak ez egozala, erabagi zan Lekuona kentzea eta euskera batua onartzea. Batzar zaratatsua ta aserre bizikoa izan ei zan. Lekuonaren orde. Billasante frantzizkotarra ipiñi eben. Amar urte geroago Euskaltzaindiak batzarra egin eban Bergarako semi-

narioan amar urte onetan euskera batuak urte aretan lortu ebana aztertze.

EUSKERAZAINTZA

Euskerazaintzakoak be an egon giñan eta konponketa batera bideak eskaiñi genduzan, baña dana izan zan alperrik, ez egoan atzera egiterik. Gure alegiak ikusirik Latiegi tar Bixente, euskerazaintzako aurreratu zan eta modu onean aurkeztu eban arazoa. **”Zuek euskera batuaren Euskaltzaindia zarie, baño gu lenengo euskaltzaindiaren bidetik goaz, erri euskeraren eta euskalkien alde eta atxearen aurka, eta orregaitik euskaltzaindian zintzo jarraiturik akademia barria sortuko dogu”**

Eta Latiegi bera izan da lanik geien egin ebana, Euskerazaintza, euskeraren erri akademia sortzeko. Urteen joanean Kardaberaz bazkunak beeraka aundia izanik, euskerazaintza indartsu ari zan lanean eta ZER ALDIZKARIA argitaratzen dau. Euskerazaleak Bizkaiko erakundea da eta Bilbon, Colon de Larreategin-14, 2en oiñean da bere egoitza

50 urte dira **Euskerazaleak** sortu zala. Jesus Oleaga, Juan Ramon Urkijo, Jose Antonio Montiano, Adrian Zelaia eta beste batzuk sortzaille izanik. Erakunde onen elburuak onexek dira: Erri euskera eta euskalkiak indartu, batez be bizkaiera, eta Euskerarentzat kaltegarri dan atxea alboratu. Elburu onek betetzeko batu gaitzean eta ekin gure erriaren alde eta orain **40 urte Zer aldizkaria** sortu zala, On Martin Olazar, Iñaki Zubiri Landajueta, eta beste batzuk

Euskerazaintza eta Euskerazaleak alkartea

Euskerazaleak erakunde bizi-bizia eta eraginkorra da euskeraren alde jokatze. Zuzendaritzaren egokitasuna. Lendarikaria: Klaudio Barroeta, Lendaka-

ri ordea: Iñaki Egurrola. Idazkaria: Paul Atutxa. Diruzaiña: Karmele Fernández. Maikoak: Begoñe Arrieta, Koldobike Arrieta, Jokin Astobiza, Itziar Arrieta.

Ekintzak Illeroko batzarrak eta urtekoa egiten dabe urteburuan ainbeste ekintzak eratu eta atontzeko, danok biotz batez, alkaturik. Ona emen, laburkiro, ekintza guztien kopurua, euskeraren eta euskal erriaren alde.

Leen eta bein **ZER Aldizkaria**, eta bere illeroko orrialdeetan Ipuin-sariketa, Euskal astea, takoa Bizkaieraz, Ikasturtea, iztegia. Eta, batez be, Zer aldizkarian, idazlari trebe eta argiak. Interneten bidez euskerari zabalera eta indar bizia emoten dautsogu, Web 1.000 000 ikusle ditu, geienak Unibersitatetik datozen ainbeste ikusle. Egia esateko aupagarri izango da 50 urteurrenean ospakizun goragarria, batez be, Euskerazaleak Alkartea, leial ekin eta jarraitzeko.

